

IRAKASLEARENTZAT ORIENTABIDEAK

PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

Guztiok gara desberdinak, arraza, hizkuntzaz, jatorriz, ohituraz...batzuetan desberdintasun hauek egoera desatseginak sortzen dituzte (gatazkak, istiluak, txarto ulertuak). Guk egoera horiek saihesten saiatuko gara hitz egiten, laguntzen eta sentimenduak ulertzen. Kultur elementuak (jokoak, idazkerak, ospakizunak, jantziak, hizkuntzak...) ezagutuko dituzte eta aldi berean antzemango dute non dauden desberdintasunak eta berdintasunak.

Argudio testua izango da proiektu honetan landuko dugun testu tipoa: euskara arloan iragarkia eta gaztelanian debatea.

Irakaskuntzan gutxien lantzen den testu tipoa argudio testua da; ikasle-irakasleek gutxitan aurkituko dute testu tipo hori lanerako materialetan, nahiz eta gure eguneroko bizitzan etengabe darabilzkgun argudioak.

Argumentazioak estrategia diskurtsibo eta ezaugarri linguistiko propioak dituen ikasleei erakutsi eta irakasleei materiala eskaini egin behar zaie.

Bestalde, gaur egungo gizarteak dituen erronka berriei aurre egin nahian kultur aniztasunak sor ditzakeen gatazkak gainditzeko irtenbideak (iritziak) lantzea eta eztabaidatzea da proiektu honen xedea.

“Konponbide Bila” proiektu honetan, Natura, Gizarte Eta Kultura Ingurunearen Ezagueraren Curriculumeko 4 blokeari dagozkion edukiak landuko dira: (Pertsonak, kultura eta gizarte-antolakuntza).



KOMUNIKAZIO EGOERAREN DESKRIBAPENA

Kultur aniztasuna, norberaren sentimenduak eta gatazken irtenbideak izango diren gaiak proiektu honetan. Hartarako, ikasleek euskaraz bizikidetzarako jarraibideak eztabaidatu ondoren akordioak iragarkietan islatuko dituzte. Gaztelania arloan aldiz, fabula batek ematen duen ikasketa eztabaidatuko da gelan egingo duten debatean.

PROIEKTUAREN ARDATZ KOMUNA

Testu tipoa: Argudio testua.

Gaia: bazterkeriaren aurka; konponbide bila.

HELBURU OROKORRAK

Hizkuntza

1. Ahozko diskurtsoak eta diskurtso idatziak ulertzea eta interpretatzea, ulerpen hori komunikazio- eta ikaskuntza-egoera berriei aplikatzeko.
2. Hizkuntza egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzea ahoz nahiz idatziz, komunikazio-premia guztiak behar bezala betetzeko.
3. Era egokian elkarrizketan aritzea, errespetuz eta lankidetzan asmoz, hartara norberaren sentimenduez eta ideiez ohartzeko eta norberaren jokabidea kontrolatzeko, eta jendartean eraginkortasunez komunikatzeko eta jakintza talde-lanean eraikitzeke.
4. Hizkuntzen erabilpen-sistemei eta -arauei buruzko gogoeta egitea, hizkuntzak ulertzeko eta sortzeko prozeduren harian, hartara hizkuntzak egoki, koherentziaz eta zuzentasunez erabili eta behar bezala komunikatu ahal izateko hainbat giro sozial eta kulturaletan; betiere, alde batera utzita hizkuntzaren estereotipoak, hau da, edozelako balio-judizioak eta aurreiritziak.

5.-Ulertuz irakurtzea hizkuntza-erabilera anitzeko esparrutako testuak, ikasleen esperientziekin eta interesekin zerikusia dutenak, eta, horren bidez, irakurzaletasuna bultzatzea, informazio-iturria eta nortasun kulturala, soziala eta pertsonala eraikitzeke sorburua den aldetik.

Ingurune

1.-Norberaren kulturaren ezaugarriak eta gainerako taldeekiko ezberdintasunak balioestea, gainerako identitate, kultura eta herriak errespetatzea, eta Giza Eskubideak errespetatu behar direla gogoratzea, hezkuntzaren kultura arteko dimentsioa sustatzeko asmoz.

2. Talde-jardueretan parte hartzea, funtzionamendu demokratikoaren oinarriko printzipioak aplikatuz; guztion helburuak lortzeko norberaren eta besteen ekarpenak balioetsiz, eta elkartasunez komunitatearen alde eginez inolako bereizkeriarik gabe (generoan, arrazan, kulturen, erlijioan edo beste edozertan oinarritutako diskriminaziorik gabe).

3. Gizarte- eta kultura-inguruneke egitate, kontzeptu eta prozesuak kode kartografikoen bidez interpretatu, adierazi eta irudikatzea eta horixe bera egitea errealitate geografikoak, ekonomikoak, historikoak eta bestelakoak adierazten dituzten bestelako adierazleekin, norberak bizi duen gizarte-errealitatea egoki ezagutzea lortzeko.

4. Gatazkaren existentzia onartzea; ezberdintasunak gainditzeko mekanismo demokratiko gisa eta taldeen barne-aldaketarako faktore gisa erabiltzea, tratu txarrak eta jazarpenak eragozteko eta bizikidetzaren onuragarria lortzeko.

5. Berezko nortasuna eratzea, norberaren lorpen-, esfortzu- eta hobetze-motibazioa sustatuko duten estrategien alde eginez, gizaki autonomo eta besteekin harremanean ari den gizartekide gisa garatzeko.

PROGRAMAZIOA

KONPONBIDE BILA

Komunikazio egoera

Euskara	Gaztelania
Gaia: Konponbide bila Igorlea: Ikasleak Hartzailea: Ikaskideak Kanala: A / I / (I > A) / (A > I) / (Iksntzk) /Gr / Asmoa: ikasleen jokabidean eragitea Argitalpen lekua: Ikasgela, korridorea Eremua: komunikabideetako	Gaia: Konponbide bila Igorlea: Ikasle taldea Hartzailea: Ikaskideak Kanala: A / I / (I > A) / (A > I) / (Iksntzk) /Gr Asmoa: ikasleen jokabidean eragitea Argitalpen lekua: Ikasgela/etxeko liburutegia Eremua: komunikabideetako

Testu generoen errepertorioa

Euskara	Gaztelania
Ipuina U/A U/I	Bizipenen kontakizuna U/E A/I
Ipuin alegorikoa U/Iksn-Gr/, U/A	Iragarkiak U Iksn/Gr
Bizipenen kontakizuna U/I,	Alegia U A/I
Kultur desberdinen azalpena E/A	Ipuina U A
Gelako egoera desatseginak deskribapena E/A E/I	Eztabaida E A
Iragarkiak U/Gr E/I/Gr	
U: ulertu E: ekoiztu A: Ahoz I: Idatziz Iksn: Ikusentzunezkoa GR Grafikoa	















Argudioa testuaren ezaugarriak:

- Asmoa: entzulearengan eragina izan.
- Emailaren iritzia adierazteko esamoldeak
- Menpeko esaldia.
- Hartzailearekin harremanatzeko estrategiak.

UNITATEAREN BIZKARREZURRA

Sekuentziak	Jarduerak	Or.
PATAKON KONPONBIDE BILA	Patakon, Larrabetzuko lapur ona Zer egingo dugu?	4 6
GU, BERDINAK ALA DESBERDINAK?	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ni ere Patakon izango naiz 2. Patakon konponbide bila dabil 3. Bestelakoak garenean 4. Nolakoak dira gure hizkuntzak? 5. Nolakoak dira gure ohiturak? 6. Nolakoak dira gure idazkerak? 7. Nolakoak gara neska-mutilak? 8. Itxura berdina daukagu? 9. Zer daukagu berdin, zer desberdin? 	9 10 11 12 16 21 23 25 26
NOLA KONPONDU ELKARREKIN?	<ol style="list-style-type: none"> 10. Zuzendariaren gutuna 11. Lau Iskintxori konponbidea bilatu 12. Nori dagokio 13. Sergeik arazo bat dauka 14. Zuria ala beltza, zer behar da gehiago? 15. Gure arazoa honela konpon daiteke 	28 31 33 34 35 37
IRTENBIDEAK PLAZARATU	<ol style="list-style-type: none"> 16. Zer dira iragarkiak? 17. Nolakoak dira iragarkiak? 	38 40
KONPONBIDEAK IRAGARKIETAN	<ol style="list-style-type: none"> 18. Gure iragarkiak 19. Zer ikasi dut? 	41 43
	Ebakigarriak	45

HELBURU DIDAKTIKOAK













Euskera	Gaztelania
<p> Giza harremanetan ikasgela barruan erabilitako ahozko testuak ulertzea: ohiturak, abisuak, arauak, azalpenak, iritziak, bizipenen eta sentimenduen kontaktak.</p> <p> Euren adinerako egokiak diren ahozko kontakizunak ulertzea eta beste egoera batzuetan aplikatzea.</p>	
<p> Testu idatzi errazak ulertzea</p> <p> Informazio zehatza aurkitzea eta hautatzea irakurketaren helburua betetzeko.</p>	
<p> Iragarkiak bereiztea, eta haren asmoa eta gaia antzematea, bere elementu linguistiko eta ez-linguistiko oinarritzkoenak interpretatuz.</p>	<p> Fabulak zer dioen ulertzea eta haren zentzu orokorra antzematea.</p>
	<p> Eduki berriak bere ideiekin erlazionatzea, eta testuko elementu zehatzei buruzko iritzia ematea, deigarriak egin zaizkion neurrian.</p>
<p> Era antolatuan ahozko testu erraz eta laburrak sortzea gertaerak, bizipenak edo ideiak azaltzeko.</p>	
<p> .Gelako harreman-egoeretan eta talde lanetan parte hartzea, harremanaren oinarritzko arauak betez (txanda zaintzea, parte hartu, besteen iritziak onartu)</p>	
<p> Gogoz parte hartzea testuaren plangintza egiteko, idazteko eta berrikusteko talde-jardueretan.</p> <p> Gero eta hobeto idaztea oinarritzko arauak betez: fonemak eta horien grafia bat etorrita, hitzen segmentazioa eta puntuazio-markaren bat.</p> <p> Komunikazio-egoerara egokitutako edukiak adieraztea</p> <p> Testua txukun eta argi aurkeztea</p> <p> Idazketari buruz gogoeta egitea idazketa-sistemaren erabilera sendotzearen.</p>	
Gelako eta komunitateko hizkuntzen	

aniztasuna ezagutzea eta harekiko jarrera baikorra izatea, inguruan hizkuntzak nola erabiltzen diren ikusiz.	
Euskara erabiltzea eskolako elkarrizketetan.	
Zikloari dagozkion literatura-testuak irakurtzea, entzutea eta adieraztea: aho-tradiziokoak, haur-literaturakoak eta helburu ludiko-estetikoa dutenak.	
Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea, eta hobeto ikasten lagunduko dioten alderdi batzuk identifikatzea.	
Ingurune	
Norberaren emozio eta sentimenduak kontrolatzearekin zerikusia duten praktika mesedegarrien adibideak jartzea, eta horiek ongizaterako duten garrantzia adieraztea.	
Inguruko pertsonetikiko harremanatzea bereizkeria-irizpideak (sexistak, arrazistak...) alde batera utziz.	
Gainerako giza taldeen ohiturak eta bizimoduak errespetatzea.	
Informazioaren erregistroa egitea eta grafiko errazak egin eta interpretatzea.	
Eskolako oinarrizko bizikidetzara-erabiltzea eta elkarrizketaz baliatzea bere ideiak emateko eta gatazkak ekiditeko.	

EDUKIAK

KONTZEPTUAK	PROZEDURAK	JARRERAK
<ul style="list-style-type: none"> • Iragarkiaren asmoa. • Fonemak eta horien grafia. • Hitzen segmentazioa. • Puntuazio-markak: puntua. • Egoera komunikatiboa. • Iritziak emateko esamoldeak eta esaldi kausalak. • Hizkuntzen aniztasuna. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasgela barruan erabilitako ahozko testuen ulermena. • Ahozko kontakizunen ulermena • Ulertutakoaren erabilera. • Testu idatzi errazen ulermena. • Beharrezkoa den informazioaren hautaketa. • Iragarkiaren oinarrizko elementu linguistiko eta ez-linguistikoen interpretazioa. • Testuaren plangintza eta berrikusketa. • Testuen aurkezpen txukuna. • Literatura-testuen irakurmena, entzumena eta adierazpena. • Ikasten ikasteko estrategiak: kontrol zerrenda. • Norberaren emozio eta sentimenduen identifikazioa. • Informazioaren erregistroa eta grafikoak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Talde lanetan parte hartzea. • Oinarrizko giza arauen errespetua. • Hizkuntzarekiko jarrera baikorra. • Euskararen erabilpena. • Bereizkeria-irizpideen bazterketa. • Gainerako giza taldeen ohitura eta bizimoduekiko errespetua.

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

Euskera	Gaztelania
 <p>Ea giza harremanetan ikasgela barruan erabilitako ahozko testuak ulertzen dituen.</p>	
 <p>Ea ahozko kontakizunak ulertzen dituen eta ulertutakoa beste egoera batzuetan aplikatzen duen Patakon ipuina <i>Fábulas</i></p>	
 <p>Ea testu idatzi errazak ulertzen dituen. Patakon ipuina eta "Nolakoak dira gure ohiturak" testuak (16-20 or.) <i>La liebre y la tortuga</i></p>	
 <p>Ea informazio zehatza aurkitzen eta hautatzen duen irakurketaren helburua betetzeko. "Nolakoak dira gure ohiturak" testuak (16-20 or.) <i>Fábulas</i></p>	
 <p>Ea iragarkiak bereizten, eta haren asmoa eta gaia antzematen duen, bere elementu linguistiko eta ez-linguistiko oinarrikoenak interpretatuz. 16-17 jarduerak</p>	 <p>Ea fabulak zer dioen ulertzen eta haren zentzu orokorra antzematen duen. <i>La liebre y la tortuga</i></p>  <p>Ea eduki berriak bere ideiekin erlazionatzen dituen. <i>La liebre y la tortuga</i></p>
 <p>Ea era antolatuan ahozko testu erraz eta laburrak sortzen dituen gertaerak, bizipenak edo ideiak azaltzeko. Umeen ohituren ahozko azalpena <i>¿Qué ocurre a veces entre amigos?</i></p>	
 <p>Ea gelako harreman-egoeretan eta talde lanetan parte hartzen duen, harremanaren oinarriko arauak betez (txanda zaintzea, parte hartu, besteen iritzia onartu) Talde lanetan</p>	
 <p>Ea talde-jardueretan testuaren plangintza egiteko parte hartzen duen, testua idazteko eta berrikusteko. 41-42 or Página 34</p>	
 <p>Ea gero eta hobeto idazten duen oinarriko arauak betez: fonemak eta horien grafia bat etorrita, hitzen segmentazioa eta puntuazio-markak: puntua , galdera ikurra eta gidoia. 37. or Página 20</p>	
 <p>Ea Idazketari buruz gogoeta egiten duen idazketa-sistemaren erabilera sendotzearen.</p>	



Ea komunikazio-egoerara egokitzen den.
Iragarkia



Ea testua txukun eta argi aurkezten duen.
Iragarkia



Ea komunikazio-egoerara egokitzen den.
Debate

Ea gelako eta komunitateko hizkuntzen aniztasuna ezagutzen eta harekiko jarrera baikorra duen.

Ea euskara erabiltzen duen eskolako elkarrizketetan.

Ea zikloari dagozkion literatura-testuak irakurtzen eta entzuten dituen.

Ea ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzen dituen.

Ingurune

Ea norberaren emozio eta sentimenduak identifikatzen dituen.

8. jarduera

Página 13

Ea inguruko pertsonetikiko harremanetan bereizkeria-alde batera uzten duen.

Ea gainerako giza taldeen ohiturak eta bizimoduak errespetatzen dituen.

Ea informazioaren erregistroa egiten duen eta grafiko errazak egin eta interpretatzen dituen.

4. jarduera

Ea eskolako oinarriko bizikidetzara-arauek ezagutzen eta elkarrizketaz baliatzen den bere ideiak emateko eta gatazkak ekiditeko.

Desberdinak izatea gustatzen zaigu

Ikasleek euren arteko harremanetan sortzen diren istiluak aztertuko dituzte eta horiei zelan aurre egin adostuko dute unitate honetan. Hori dela eta egingo duten azken ekoizpena bizikidetzarako iragarkiak izango dira.

Arazoak konpontzen lagunduko duen pertsonaia Patakon heroia izango da eta ikasleen artean arazo bat sortzen denean gure heroia agertuko da, hori baita bere zeregina. Unitate amaieran sortutako

Guztiok gara	eta ezberdintasun ak batzuetan	Egoera desatseginak sortzen ditu	Baina guk saihesten ditugu
<ul style="list-style-type: none"> • Bereziak • Ezberdinak Tamaina, sexua, arraza, hizkuntza, jatorria, ..		<ul style="list-style-type: none"> • Gatazkak • Istiluak • Arazoak • Gaizki ulertuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Hitz egiten • Sentimenduak ulertzen • Laguntzen

iragarkietan batuko dira gatazkak sortzen direnerako irtenbideak, ikasleak izan daitezen eragile horrelako egoeretan.

Irakurgai osagarriak:

[📄 Convivencia escolar y Prevención de la violencia resumen.doc](#)

[📄 convivencia escolar y prevención de la violencia.pdf](#)

<http://portales.educared.net/convivenciaescolar/contenidos/biblioteca015.pdf>

0 Sekuentzia PATAKON KONPONBIDE BILA MOTIBAZIOA

Hasteko, Patakonen istorioa kontatuko dugu. Irakasleak ikusiko du nola egin kontaketa:

🌀 [Kamisibaia](#) (paperezko antzerkia) erabiltzea (horretarako Baliabide karpetan aurki daiteke kamishibaia, [irudiak](#) eta [testua](#)).

🌀 [biñetak](#) erabiltzea (Baliabide karpetan)



Ipuina kontatu baino lehen	Ipuina kontatzean	Ipuinaren amaieran
<ul style="list-style-type: none"> • Zein da izenburua? • Zeri buruz izango ote da ipuina? • Zer da Larrabetzu? • Noiz gertatuko ote da? • ... 	<ul style="list-style-type: none"> • Zer gertatuko ote da orain? • Zergatik egin ote du hori? • Zelan amaituko ote da? • ... 	<ul style="list-style-type: none"> • Gustukoa izan duzue ipuina? • Ondo egin ote du Patakonek? • Ba ote dago lapur onik? • Ondo dago lapurretan egitea? • Zer egingo zenukete Maitetxo izatekotan? • Zer egingo zenukete Patakon izatekotan? • ...

Ipuina entzun eta gero gezien bidez lotuko dute testua eta irudiak.

NEGOZIAZIOA

Zer egingo dugu?

Sekuentzia honetan ikasleekin batera zer egingo dugun “negoziatuko dugu”.


Zer egingo
dugu?

- Iragarkiak
- Arazoei irtenbideak bilatu
- Nolakoak garen aztertu
- Iragarkiak egin
- Taldean lan egin

Ondoren, autoerregulazio jarduera honetan ikaslea lanaren aurrean dituen dohain eta zailtasunen gainean hausnarketa egingo du.

Jarraian, gogoratu nahi ditugu talde txikian lan egiteko arauak (gaztelanian landu dira). Proiektu honetan ikur horiek agertuko dira talde-lana proposatzen den bakoitzean, ikasleek euren lana baloratuko dute ikur horietan gurutze bat jarrita. Erantzun behar duten galdera hauxe da:

Zer egin dugu ondo?



Txanda gorde dut.

Denok eman dugu iritzia.

Ados jarri gara

1. SEKUENTZIA

GU, BERDINAK ALA DESBERDINAK?

Ni ere Patakon izango naiz

Helburua: Istiluak irtenbidea badutela eta Patakon berriaren betebeharra horiek konpontzea dela.

Ibilbidea: jarduera honetan Patakonen irudiaren gainean ikasleek bere izena eta aurpegia jarriko dute.

Taldekatzea: banaka

Patakon konponbide bila dabil

Helburua: Egoera gatazkatsuak identifikatzea.

Ibilbidea: Hasieran irakasleak gogoraraziko dizkie gelan ematen diren egoera gatazkatsuak, noiz, non zergatik, zelan sentitu diren... eta elkarrizketa sortuko da gai honen gainean. Hartarako, komeni da gutxieneko arauak errespetatzea (entzun eta txanda eskatu). Talde bakoitzak egoera bat aukeratuko du eta marrazkia egingo du. Ondoren, azalduko dute idatziz eta esaldi gutxitan egoera horretan gertatzen dena. Gogoratu behar zaie idazketaren hasieran letra larria erabiltzea eta amaieran puntua jartzea.

Taldekatzea: Talde handian eta gero talde txikietan egingo dute lan.

Bestelakoak garenean

Helburua: berdintasunak eta ezberdintasunak antzematea .

Ibilbidea: bizikidetzan egindako materialetik hartuta eta Juventud argitaletxeak argitaratuta [LAU ISKINTXO 1..pps-a](#) edo laminak irudiekin aurkeztuko zaie ikasleei. Ipuineko protagonistek komunean dauzkaten ezaugarriak eta bereizten direnak antzemango dituzte. Ikasleek bilatuko dute multzoa definitzen duen ezaugarria (denak dira borobilak bat izan ezik).

Istoria ahoz kontatu daiteke irudien laguntzaz, geroago haiek, talde txikietan, antzeko istorioa bateko pertsonaiak marraztuko dituzte (animaliak, botoiak, irudi geometrikoak... erabili ditzakete).

Egin daitezkeen galderak:

Ze alde dago figuren artean? Berdinak dira guztiak? Zein da desberdina? Nolakoa da? guztiz berdinak dira borobilak (koloreak)? guztiz ezberdinak dira laukia eta zirkuluak? (estutasuna, tamaina) Non dago arazoa? Ba al dago arazoa konpontzerik? Nola sentituko da Lau Iskintxo?

Taldekatzea: ipuinaren kontaketa eta azalpen orokorrak talde handian eta talde txikian egingo da jarduera.

Nolakoak dira gure hizkuntzak

Helburua: gelakideek ezagutzen dituzten hizkuntzak aztertzea.

Ibilbidea: gelako partaideek ezagutzen dituzten hizkuntzei buruz arituko dira.

Lehenengo elkarrizketa sortuko dugu irakaslea eta ikasleen artean:

- Eta gu berdinak gara? Berdin hitz egiten dugu?
- Inork ba al daki zenbat hizkuntza desberdin dagoen munduan? (5000-6000). Utzi hurrei estimazioak egiten.
- Letra mota berdinak erabiltzen al dira hizkuntza guztietan?
- Zein da guk idazterakoan erabiltzen dugun norabidea? Denek erabiltzen al dute norabide berbera? (Batzuk eskuinetik ezkerrera, beste batzuk goitik behera).

- Inork ba al daki bere izena idazten beste idazkera batean? Nola jakin dezakegu? Saiatuko gara nonbait bilatzen edo galdetzen.

<http://lexiquetos.ohui.net/nombres-chino/>

<http://lexiquetos.ohui.net/nombres-japones/>

<http://lexiquetos.ohui.net/nombres-arabe/>

Gero, ikasleak hizkuntza bakoitzarekin zer harreman duen adieraziko du inkesta eta taula batean.

Egoera aproposa izango da taulak lantzeko:

Amaieran gelako datu guztiak [grafiko](#) batean biltzea. Komenigarria izango da ondorioak ateratzea (emaitzak interpretatu, zenbat, non, zertarako,

Linkak, eta material osagarria:

- [Informazio lanketa.doc](#)
- [Grafika ereduak.doc](#)
- [MUNDUKO HIZKUNTZAK.doc](#)
- Munduko mapa

Taldekatzea: Talde handian zein txikian.

NON HITZ EGITEN DIRA EZAGUTZEN DITUGUN HIZKUNTZAK?

(“Mi primer portfolio”-tik egokituta)

Helburua: Beste hizkuntza batzuk daudela ezagutzea eta horiek non hitz egiten diren bilatzea.

Ibilbidea: Denon artean hizkuntza bakoitzari kolore desberdin bat egokituko diogu. Non hitz egiten diren aztertuko dugu. Herrialde horien zabalerak konparatuko ditugu, mapan non dauden ikusi...hiztegi aproposa erabiliz.

Adibidez:

EUSKARA



GAZTELANIA



INGELESA



Kolore hauek gelan agerian izatea komeniko litzateke erreferentzia gisa ekintza desberdinetan.

Ondoren bakoitzak bere etxean beste hizkuntza batzuk erabiltzen baditu, baita ere agertu egingo ditugu eta beste kolore batzuk egokituko dizkiegu.

FRANTSESA  ALEMANA  ARABIERA 

- Hizkuntza horiek, jatorriz, non hitz egiten diren ikusiko dugu eta mapan kokatu ditugu.
- Mapa kolektibo bat izango dugu aurrean eta lurralde bakoitza bilatuko dugu mapan:
 - Zer kontinentetan dago?
 - Lurralde handia al da? Gurea baino handiagoa? Txikiagoa?...
 - Ze lurralde dauka inguruan? Ba du itsasorik?
 - Nola deitzen zaie lurralde horietan bizi direnei?

Goiko informazio guztia taula batean ipin dezakegu.

Taldekatzea: Talde handian zein txikian.

Nolakoak dira gure ohiturak? www.intervida.org -etik egokituta

Helburua: Munduko kulturen elementu batzuk berezitu eta sailkatu.

Ibilbidea: Aldez aurretik, umeei aukera emango zaie dituzten ezaguerak plazaratzeko eta elkarrizketa sortuko da kultur elementuen inguruan. Honekin batera erakusketatxo bat antola daiteke ikasgelan etxetik ekarritako kultur elementu ezberdinekin.

Kultura desberdinetako umeei buruzko testuen irakurketa taldeka egin daiteke saioa ez luzatzearen, hau da, talde bakoitzak testu bat aukeratuko du. Gero, talde bakoitzak orri handi batean itsatsiko ditu egokitu zaion haurra eta bere herriari dagozkion kultur elementuak. Amaieran, talde bakoitzak azalduko du jasotako informazioa.

Taldekatzea: Talde handian zein txikian.

Nolakoak dira gure idazkerak?

Helburua: munduko idazkerak desberdinak direla antzeman.

Ibilbidea: idazkera mota desberdinei buruz elkarrizketa sortu, bakoitzak dituen ezaugarriak aipatu eta ondoren lotu bakoitza dagokion pertsonaiarekin. Amaieran, piktograma txinatarrek egitea proposatzen zaie. Helbide honetan aurki daiteke nola idatzi hainbat izen.

<http://lexiquetos.ohui.net/nombres-chino/>

<http://lexiquetos.ohui.net/nombres-arabe/>

Taldekatzea: Talde handian eta banaka.

“Hay miles de lenguas y centenares de alfabetos. Los alfabetos como el latín, que utilizan una letra para cada sonido, pueden servir para escribir casi todas las lenguas, pero requieren que el lector entienda aquella lengua. Los chinos tienen una escritura ideográfica, con más de 6.000 signos, aunque los más habituales son unos 2.000, hablan dialectos muy diferentes, de manera que no se entienden entre ellos si no usan el mismo dialecto. En cambio, la escritura es común a todos los dialectos, haciendo posible que un periódico editado en Pequín pueda ser leído por todos los chinos.” **DIVERSIDAD Y MULTICULTURALIDAD** www.intervida.org -etik egokituta

Nolakoak gara neska-mutilak?

Helburua: jostailuek sexurik ez dutela eta bai neskek, bai mutilek, jostailu guztiekin jolas daitezkeela jakitea. Esaldi kausalak lantzea (-lako)

Ibilbidea: hasieran, hurrek etxean dituzten eta gehien gustatzen zaizkien jostailuei buruz hitz egingo da. Gero, talde txikietan jostailuak nori oparituko dioten eta zergatik pentsatuko dute. Ikasle bakoitzak idatziko du pentsatutakoa beti ere ereduak jarraituz. (Tutoretza Lehen hezkuntzan: 25:1)



Adibide gisa, erantzunak honakoak izan daitezke:

Nik baloia-ri oparituko diot futbolari amorratua delako.

Nik soka -----ri oparituko diot beti saltoka dabilelako.

Panpina-rentzat izan ahal da umezalea delako.

Taldekatzea: Talde handian eta talde txikietan zein banaka.

Itxura berdina daukagu? (18.1 JARDUERA: Haserretzeko eskubidea dugu)

Helburua: haserre gaudenean ere ondo erantzuten ikasi behar dugula kontutan hartzea.

Ibilbidea: Julen eta Eneko pertsonaiekin gertatutakoa aztertuko dute. Ondoren, egunero bizi diren antzeko egoerak deskribatuko dituzte, zein gauzarekin haserretzen diren kontatuko dute, zer sentitzen duten eta egoera horietan nola erantzungo zuten, nola esango zuten EZETZ azter daiteke. Egoera honakoak izan daitezke:

- Norbaitek beldurtzen dituenean.
- Norbaitek erasotzen dietenean.
- Zerbait kentzen dietenean
- Ezezagun batek gozoki bat eskaintzen dizu eta berekin kaletik buelta bat ematea proposatzen badizu.
- Mutil batek neska bati kuleroa jaitsi nahi dio. Zer esango dio neskak?
- Neska batek kromoak kendu dizkizu. Zer esango zenioke?

Gero, talde bakoitzak erabakiko du zein izan daitekeen Enekoren erantzuna eta globoan idatziko du. Idazterakoan berriro puntuazio arauak , letra larria...gogoraraziko diegu. eta pentsatuko dute zein izan daitekeen erantzunik egokiena

Taldekatzea: talde handian eta talde txikian egingo da.

Zer daukagu berdin, zer desberdin?

Helburua: desberdintasunak aberasten gaituela ondorioztatzea.

Ibilbidea: irudia ikusita pentsa dezagun nolakoa izango zen gure mundua denak berdinak bagina. Hausnarketa txikia egin. Gero, bilatu denon artean ditugun berdintasunak eta desberdintasunak, eta zer nahiago duten pentsatu.

Taldekatzea: talde handian.

2. SEKUENTZIA

NOLA KONPONDU ELKARREKIN?

Sekuentzia honetan ikasleak hainbat egoeraren aurrean jarriko ditugu, gure asmoa egoerak gatazkatsuak identifikatzea eta horiei irtenbideak bilatzea izango da. Aldi berean, ondorio batzuk atera nahi izan ditugu, hau da, ikasketa bat eta lauki batean sartu ditugu. Ondorio horiek iragarkietan jarriko ditugun esaldiekin zerikusia dute.

Zuzendariaren gutuna

Helburua: Eskolan ematen diren egoera gatazkatsuak antzeman.

Ibilbidea: eskolako zuzendariak gutuntxo bat bidali die 1. mailako ikasleei (gutuna benetakoa izan daiteke, igorlearen sinadura eta ikastetxearen zigiluarekin). Denon artean aztertuko dute gutuntxoa:

- Nork igorri du ?
- Nori igorri dio?
- Zertarako da?
- Nola bidali du?
- Zer dio mezuak?...

Ikasleak taldeka daudela, bakoitza esparru desberdin batez arduratuko da eta toki horretan gertatzen denaz arituko dira 2. galdera sortaren laguntzaz. Amaieran taldeko bakoitzeko bozeramaleak taldean hitz egindakoaren berri emango du.

- Zer gertatzen den.
- Non.
- Noren artean.
- Beti pertsona berdinak al diren.
- Nola sentitzen diren.
- Zer iruditzen zaigun.

Marraskia eginez eta idatziz adieraziko dute haiei gertatzen zaiena.

Ondoren taldeen ekarpenak batuko dira eta gutuna idatziko da. Horretarako, zuzendariaren gutuna eredutzat har daiteke (desberdinu testuaren zatiak, data, hasierako formula, testua bera, eta agurra) eta erantzuteko gutuna arbelean idatziko du irakasleak eta umeeak bertatik kopiatuko dute.

Erantzuna zuzendariari bidaliko diogu.

Taldekatzea: talde handian eta talde txikian egingo da.

Laukitxori konponbidea bilatu

Helburua: sortzen diren arazoei konponbideak bilatzen saiatzea.

Ibilbidea: denon artean gogoratuko dugu Laukitxok izan zuen arazoa bere lagunekin batera etxe handian sartzeko eta ikasleei eskatuko diegu talde txikietan irtenbideak bilatzea eta marraztea. Gero, [Lau iskintxo bukaera ppt2](#) ikusi eta ikasleek asmatu dutenarekin konparatu, zein da irtenbide hobea?

Taldekatzea: talde handian eta talde txikian egingo da.

Nori dagokio?

Helburua: Lana denon artean egitea egokiagoa dela ondorioztatzea. (Tutoretza Lehen hezkuntzan: 26:1)

Ibilbidea: Etxean egin behar lanei buruz eta lan horiek nortzuk betetzen dituztenei buruz hitz egingo dute. Lauki berdean etxean egin behar den beste lan bat marraztuko dute. Erdiko lauki zurian etxean bizi direnen irudia egingo dute. Beharrak denontzat erosoago izan daitezen zer proposatuko luketen galdetzen zaie ikasleei.

Taldekatzea: talde handian eta talde txikian egingo da.

Sergeik arazo bat dauka

Helburua: sortzen diren arazoei konponbideak bilatzen saiatzea.

Ibilbidea: Sergei eta Minaren arteko gatazka irakurri eta komentatzen da talde handian. Aukeran dago benetako gaitetekin egoera aurkeztea. Denon artean bilatuko dute egoera horri eman ahal dioten irtenbidea eta gero idatziz adieraziko dute.

Taldekatzea: talde handian eta talde txikian egingo da.

Zuria ala beltza, zer behar da gehiago?

Helburua: usteari arrazoia gaineratzea.

Ibilbidea: konparaketa egiteko modu asko daude: formak konparatuz, barruan dauden unitateak marraztuz, irudiak tolestuz, triangelu unitatea paperean eginez azalera konparatzeko (zenbat aldiz jar daiteke). Modu batean zein bestean egiten animatuko ditugu, beti ere ustea gaineratuko diote emandako arrazoiari.

Taldekatzea: talde handian eta talde txikian egingo da

Gure arazoa honela konpon daiteke

Helburua: bizi duten egoera bati konponbidea bilatu. Azken sekuentzian egingo duten iragarkia prestatzen hasi.

Ibilbidea: **Guri hauxe gertatzen zaigu jardueran** ikasle talde bakoitza egoera gatazkatsu bat identifikatua eta marraztu zuen. Jardueran talde bakoitzak marraztu eta idatziko du egoera bakoitzaren konponbiderik egokiena. Ematen duten irtenbidea iragarkietan plazaratuko du hurrengo sekuentzian.

Taldekatzea: talde handian eta talde txikian egingo da.

3. SEKUENTZIA

IRTENBIDEAK PLAZARATU

Zer dira iragarkiak?

Helburua: iragarkiak zer diren, zertarako eta nolakoak diren aztertu.

Ibilbidea: jarduerako iragarkiak aztertu, hausnarketa egin eta galdetegia erantzun. Komeni da iragarki bakoitzaren asmoa zein den zehaztea (**zer egin esaten digu**). Jarduera amaieran ondorio honetara iritsiko gara:

Iragarkiak esaten digu zer egin behar dugun. Agertzen dira aldizkarietan eta ormetan. Edonorentzat izaten dira.

Taldekatzea: talde handian eta talde txikian egingo da.

Nolakoak dira iragarkiak?

Helburua: iragarkiak itxura aldetik nolakoak diren aztertu.

Ibilbidea: aurreko jarduerako iragarkietan testua, letra tamaina, irudia eta kolorea aztertu. Iragarkietako elementu hauen ezaugarrien gainean hausnarketa egin.

Taldekatzea: talde handian eta talde txikian egingo da.

4. SEKUENTZIA

KONPONBIDEAK IRAGARKIETAN

Gure iragarkiak

Helburua: lana planifikatzea eta bizikidetzarako iragarkiak egitea. Kontrol zerrenda erabiltzea.

Ibilbidea: zirriborroa egin baina lehen komunikazio egoera aztertuko dute. Gero, taldean egin beharreko lana adostu eta banatuko dute. Gogoratu gaztelania arloan egindako lana(irudiak eta mezua nolakoak izan behar diren). Lana burutzean zuzentzeko txantiloiaz baliatuko dira egin duten lana baloratzeko: iragarkia eta talde-lana.

Taldekatzea: talde txikian

Zer ikasi dut?

Helburua: norbere burua autoerregulatzea. Unitate amaieran hausnarketa egitea.

Ibilbidea: Jarduera honetan ikasleak adieraziko du unitatean egindako lanaren osteko iritzia.

Taldekatzea: talde handian eta banaka.